



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Cesar Pilataxi

Kawsay Fundazioko burua

«Gure herrientzat, izan den gobernurik txarrena da Correarena»

Hileko lehen bi asteak Eskoriatzan (Gipuzkoa) egin ditu, Mondragon Unibertsitatearen fakultatean, Ekuadorko eta Boliviako hainbat erakunde indigenatako ordezkariekin batera. Garabide Elkarteak gonbidatu ditu guztiak, kitxuaz emitituko luketen telebista kateak sortzen laguntzeko.

Amagoia Iban

Cesar Pilataxik (Ekuador, 1961) 14 urterekin eman zuen izena Alderdi Komunistan. Diktadura osteko tradizio garaia zen. «Gauza bat da alderdi bati erantzunez lan egitea, ordea, eta beste bat zure sustrai historikoetatik abiatuta arazoei aurre egiteko erabakiak hartzea. Asko kostatu izan zait hori uler-tzea eta besteei ulertaraztea». Dolores Cacuango izan du prozesu horretarako lagun. «Herri indigenen askapenerako benetako proiektu baten alde borrokan hasi zen, eta 1940rako jada dimentsio politikoa zeukan. 80ko urtean hasieran izan nuen haren lanaren berri. Hura dut eredu». Korronte ideologiko tradizionalen eskema guztiek apurtu eta lerro politiko propioa finkatzeko. Nolako esperientzia gertatu zaizue Eskoriatzan jasotakoa? Oso baliagarria. Ikuspegiak alde-ratzeko eta partekatzeko aukera izan dugu.

Telebista propioa diseinatzea da zuen asmoa. Zertarako?
Gu lurra, kultura eta identitatea aldarrakapenarekin ari gara. Ekuadoren herri indigenak esku-bideak dituzten subjektu gisa onartuak izan daitezten, era kolektiboan. Hezkuntza arloan ere lanean ari gara, herri indigenen jakituria eta pentsamendua ardatz har-tuta. Hezkuntza prozesuan telebista sartzea da gure asmoa, kitxua hizkuntza indartzearen.

Hizkuntza eta hezkuntza aipatu dituzu. Zeu Pichinchako Hezkuntza Elebiduneko lehen probintzia zu-zendaria izan zinen, 80ko hamarkadako azken urteetan.
Bai, hezkuntza sistema elebidunaren sorreran eta kudeaketan lan egina naiz. Zuzen ari ginela uste nuen. Denbora joan ahala, ordea, desesperatzen hasi nintzen. Utzi egin nuen. Argi zegoen: sistema elebiduna ez zen baliagarria. Eskoletan, irakasleek gero eta gutxiago hitz egiten zuten kitxuaz. Gaztelaniak irentsi zuen. Sistema hark dena hispanizatzen zuen, eta gure

hizkuntza galtzeko estrategia bat zela esan nuen. Agintariekin gaizki hartu zuten, zoratuta nengoela esan zuten, muturreko joeretara joandako etnozentrista nintzela.
Eta zuk, zer zenion?
Belaunaldi osoa ikusten nuen hizkuntza propioa galtzen, berea hitz egiteagatik lotsatzen, sustraiak galtzen.
Geldiarazi alduzue prozesu hori?
Saiatzen gara. Kitxua hizkuntza irakasteko modulo bat sortu dugu, Kawsay fundazioko kideok. Besteak beste, telebistan lan egin ahal izango duen jendea trebatzea da asmoa. Jendea kontzientzia har-tzen arida, agintariei presioegiten.

«Hezkuntza prozesuan telebista sartzea da gure asmoa, kitxua hizkuntza indartzearen»

Zuen aldarrakapenek estatu egiturrekin talka egitea dakarte.

Bai. Eta geure kideekin ere talka egin izan dut nik. 1998an, Ekuadorko Konstituzio politikoa eztaba-datten ari ginela, nik jada geure burua kultura, nazio, herri gisa definitzea aldarrikatzen nuen. «Erotu egin al zara? Hori planteatzeak separatismoa, Estatutik bereiztea dakar», esaten zidaten. Nik erantzuten nien: «Eta niri zer? Noiz gal-detu digute guri Ekuadorko Estatua eta nazionalitatea erakitzeko orduan? Gu ez gara ekuadortarrak. Kitxua nazioko kidea naiz ni; eta kulturalki, Cayambe». 1998an, Cayambe kulturaren berregitura-keta antolatzen hasi nintzen, lurradea kontuan hartuta. Ekuador sortu zutenek ezarritako banaketa geo-politikoa gainditzen du gure kulturak, hiru probintziatan banatuta gaudelako. Eta kitxua herria, berriz, Ekuadoren, Perun, Bolivian, Txile iparraldean eta Argentinan dago.

Correa presidentearekin boterean, Ekuadoren zuen egoera asko hobetu dela esan ohi zaigu. Egia alda? Ni oso minduta nago. Konstituzio berriarekin ere bai. Lehendabiziko artikuluan, zeinetan Estatuan izaera definitzen den, hizkuntza nazional eta ofiziala gaztelania dela dio. Segidan esaten du kitxua eta shuarerra ofizialak direla, bai-

na «kultura arteko harremanetarako». Beraz, gure hizkuntzak bigarren mailan daude. Burkide batzuek ez dute nire mina sentitu, eta ospatu egin dute Konstituzio berria. Hori ez da gure borroka, ordea. Gu besteen maila bereko subjektuak izateko borrokan ari gara, ez bigarren mailakoak izateko.

Borroka hori zein fasetan dago?
Lur batzuk gure komunitateen esku daude. Beste batzuk Estatu-renak dira, baina, sarritan, esku pribatuen esku uzten ditu azpi-kontraten bitartez. Beraz, desegi-turatze, lurrarde eta kultur zatiketa prozesu bat jasaten dugu. Horrek sarbide oso eraginkorra eman dio gure herriean jabetza pribatuaren kontzeptuari, eta eredu komunitarioa zartatzeko tresna bihurtu da. Lan asko daukagu egiteko. Geure buruak deskolonizatu behar ditugu lehenik. Horretan ari gara, ekonomia, lurrarde kudeake-ta, hezkuntza sistema komunitarioak lantzen.

Urarekin arazo larriak dituzuela eresalatu izanduzue.

Bai. Atzerriko lore enpresa handiak dauzkarulako eskualdean. Ingurumenean, gizartearen eta kulturaren horiek zer kostu eragiten duen aztertu beharra dago. Irabaziak sortzen dituztela esaten zai-gu, bai, baina norentzat? Horiek ur asko behar dute, hasteko, eta guretzat ez delako geratzen. Guk gure lan indarra saldu besterik ezin dugu egin.

Nazioarteko krisi ekonomikoaren eraginik heldu al zaizue?

Asko, bai. Gero eta garestiago dago dena. Langabezia ere gora doa, lore enpresa asko ixten hasi direla-ko. Munduan gertatzen ari denaz ezer ez dakien komuneroa ere no-zitzen ari da krisia.

Trasnacionalak joateak, gerora begira, ezin aldu alde onik izan?

Nola jokatu asmatzen badugu, bai. Krisialdia geure ekimenei bide emateko erabiltzea da asmoa. Lehen, lurjabeen esklabo ginен. Lurrik berreskuratzea lortu dugu neurri batean, baina lehen lurjabe zirenak enpresaburu dira orain, eta haientzako lanean segitzen dugu. Kate hori eteteko ekimenak pentsatzen hasiak gara.

Zer diozu Evo Moralesi buruz? Har-kin ere minduta al zaude?

Boliviako eredu oso garrantzi-sua da, baina ezin dugu Ekuadoren erabat kopiatu. Eta alde izu-garria dago Rafael Correaren eta Evo Moralesen artean. Correak bere hiritarren iraultzari eusten dio, eta, horrekin, gizabanako-en eskubideetaz ari da, ez kolektibita-teen, nazionalitateen, entitate his-torikoen eskubideetaz. Herri indi-genentzat izan den gobernurik txarrena da Correarena. Estatutik aurrekontu batzuk jasotzen geni-tuen ekoizpena eta hezkuntza ga-ratzeko, baina horiek ezabatu egin ditu. Benetako aldaketa gauzatze-ko aukera historikoa eskuratu zuen herri mugimendu oso baterabiliz, Correa munduko ekonomia-ren nagusiak ari da laguntzen.